



## 02 GOGOETA TEORIKOA >>>

### EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA 2020 IPAR EUSKAL HERRIKO GOGOETAK

**Erramun Baxok**

*Hizkuntzalaria*

Helbide elektronikoa: [baxok@wanadoo.fr](mailto:baxok@wanadoo.fr)

Iragan urteko maiatzean, BAT aldizkarian aipatzen nuen Ipar Euskal Herrian gogoeta aro batean sartuak ginela, prospektiba eraginkor bat asmatzeko datozen 15 urteetarako. Gogoetak bururatuak dira eta orain egitarauen aroan sartuak gara. Bilduma bat egin nahi nuke erakusteko Iparraldeko ikusmoldea euskal kulturari buruz. Lau zati:

- Euskal kultur erakundea gogoetagune;
- eskema orokor bat 2020. urteari buruz;
- "Elkar bilaka", 2007-2013 egitaraua,
- hizkuntza politika berria.

#### EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA GOGOETAGUNE

1990ean bi erakunde sortu ziren Iparraldeko euskal kulturaren garapena baldintzatu dutenak: Euskal Kultur Erakundea (EKE) eta Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikatua. Euskal kultur erakundea 1901eko legearen arabera elkartea da. Bi hitz lege horretaz. 1789ko iraultzak lan korporazio, politika bitzar eta erlijio elkarte guztiak suntsitu zituen. Frantziako errepublika guztien oinarrian zegoen aginteritza

bakarraren printzipioa. Baina kapitalismoak sindikatuak sortu zituen bezala, botere politikoak ere kontra-boterea sortzen du, jendartean onargarri agertzeko. Hain zuzen III. errepublikak, XX. mende hastapenean 1901eko legea bozkatu zuen elkartegintza bermatzeko: edozein multzok erakunde bat sor dezake araudi demokratiko bat izenpetuz eta prefeturaren artxibatuz, inolako baimenik inori eskatu gabe. 1901eko legeak, harri-garriko gizarte ondasuna edo kapital soziala sortzen du, elkarren arteko fidantzan oinarritua, pertsonen eta taldeen arteko lankidetzaz errazten duena, eremu askotan, nola ekonomian hala aisialdetan, kulturen edo laguntza humanitarioan.

Ipar Euskal Herriak ez dauka berezko egitura politikorik, 1789 iraultzaz geroztik eta bi mendez egin diren eskakizunak erantzunik gabe daude. Ondorioz gure herriari hezurdura eman behar diogularik, 1901 legeko elkarteak sortzen ditugu. Adibidez Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua herria antolatzeko, Laborantza Ganbara nekazaritzaren garapen iraunkorra aitzinarazteko, EKE kulturagintzarako. Eta beste anitz. Xabier Itçainak Iparraldeko kapital soziala aztertu zuen artikulu batean segurtatuz Iparraldean badaudela 900 elkarte eremu ezberdinetan eta fenomeno hau Euskal Herriko ezaugarri nagusi bat dela. Euskalgintzan eta euskal kulturagintzan elkarteak badira hamarka, lehen Pizkundean bildu zirenak, eta orain Euskal Konfederazioan daudenak.

Euskal Kultur Erakundeko biltzar nagusian daude 107 elkarte eta 145 udalerrri (orotara 158 dira Iparraldean). Administrazio kontseiluan daude kultura elkarteak 8 ordezkari bai eta 8 “zuzenbidezko kide”, prefeta, Errepublikaren ordezkari dena, eta hautetsi batzu, botere publikoaren lau mailak ordezkatzeko Estatua, Akitaniako eskualdea, 64 departamendua eta udalarteko euskal sindikatua. Eta 16 administratzaile horiek 3 urtetarik, 4 pertsona kalifikatu izendatzen dituzte, nolazbait oreka baketsu bat segurtatzeko. Hastetik eta orain arte Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako ordezkaria, aldi oroz eta aho batez hautatua izan da pertsona kalifikatu bezala.

Euskal Kultur Erakundearen egiturak bi abantail baditu. Alde bate-tik gizarte zibila eta gizarte politikoa elkarretaritzen ditu garapen iraunkorraren legeak gomendatzen duen bezala, baina EKEk kultura eragile-ek daukate eskuetan “governantzaren” giderra. Beren gain da urteroko egitaraua eta luzaroko prospektiba definitzea. Bestalde EKEk lotura egiten du Iparraldea eta Hegoaldearen artean. Gaur egun hitzarmen bat izenpetua da Kultura Sailarekin. Eusko Jaurlaritzaren ordezkariaren presentziak ere badu garrantzi handia. Aurrekontu eztabaidetan zailtasunak direlarik diru-laguntza eskaintzen du “Frantziak ezin badu”; ondorioz Errepublikak ere eskuzabaltasun gehixago erakusten du.

Interesgarri da irakurtzea EKE osatzen duten elkarteek zerrenda. Sailka ditzagun kulturagintza, euskalgintza eta beste gizarte bizitzako beste eremu ezberdinen arabera. Lehenik eremua eta gero elkarteek kopurua.

---

*Azken urte hauetan Euskal Herriak aldaketa sakonak jasan ditu, nola demografiaren aldetik hala gizarte bizitzaren aldetik: tokiko jendetza zahartzen den neurrian, etorkinek jarraipena segurtatzen dute. Hizkuntzak eta kulturak nahasten dira herri kulturaren tokia hartuz. Azkenean geure nortasunaz dudatzen gara.*

---

**Nortasun bikoitzak  
barneko tentsioak  
sortzen ditu.**

- Kulturgintzan: animazio kulturala (27); arte hedapena (9); antzerkia (11); arte ederra (5); ikus-entzungailuak (2); musika eta kantua (8); dantza (6).
- Euskalgintza (5); irakaskuntza (6); literatura (4); historia (4); bertsularitza (1); olerkigintza (1); berriketa (1).
- Ondarea (5); ingurumena (2).
- Beste eremuak: aisialdia (3); ekonomia (1); diaspora (6).

Jakinez egitura horietarik zenbait elkarte-multzoak direla, adibidez Euskal Konfederazioa, Iparraldeko dantzarien biltzarra, Iparraldeko abesbatzen elkarteak, hemengo eta diasporako euskal etxeak, asma deza-kegu zein zuhaitz zabalaren aurrean gauden: kapital sozial indartsua euskaltasunaren alde. Indartsua eta dinamikoa: 2008an, 77 elkartetan 85 ekintza eramanen dituzte EKEren laguntzarekin.

Ondorioz ikusten da Kultur Erakundea gogoeta-gune egokia dela euskal kulturari buruzko prospektiba egiteko datozen 15 urteetarako.

## **ESKEMA OROKOR BAT 2020. URTEARI BURUZ**

Kulturaren egitasmoa, Ipar Euskal Herriko antolaketa eskema orokor batean. Antolaketa egitarauak sartzan dira hiru erronka nagusiren barnean.

### **Euskal Herri 2020**

1. Iparraldean, kostaldea eta barnealdearen arteko elkartasuna.
2. Mugaz-gaineko lankidetzak.
3. Garapen iraunkorra.

Hiru helburu hauek, erronka nagusiak dira, egitarau guztiak zeharkatuko dituztenak. Ohargarri da herrigintzako helburuak direla, aberastasunak eta baliabideak banatzea mendebaldetik ekialdera, hegoaldeetik iparraldera. Ez bakarrik espazioaren aldetik, bai eta ere denboraren aldetik: garapenak iraunkor izan behar du. Hiru erronka handinahi (“ambitions”) horien gauzatzeko lau taldek egitarau konkretuak landu dituzte: ekonomia, unibertsitatea eta formakuntza, azpiegiturak, gazteen inplikazioa.

Euskalgintzak eta euskal kulturgintzak badituzte beren lantegiak: Kultur erakundea eta Euskararen Erakunde Publikoa. Eta erdiz-erdi sartzan dira herrigintzaren prospektiban. Gainera, herri hizkuntzak garapen iraunkorrean kokatzen dira, hizkuntza ofizialaren parean, Voynet legearen bitartez: “Kultura zerbitzu kolektiboen eskemak zehaztuko du zein ekintza ezarri behar diren abian frantsesaren sustapena eta hedapena bermatzeko, eta, orobat, eskualdeen nahiz gutxiengo kulturen eta hizkuntzen babesa eta transmisioa segurtatzeko” (1999, *Lurralde antolaketa eta garapen iraunkorrari buruzko legea*, 14. artikulua).

Euskal Herri 2020 egitasmoni buruzko gogoetak abiatu ziren 2005eko udazkenean. 2006ko martxoaren 18an, EKEk Baigorriin egin zuen biltzar

nagusian, Mikel Erramouspe elkarteburuak finkatu zituen Kultura 2020 egitasmoaren helburu nagusiak.

**Kultura 2020**

1. Euskal kultura gizartearen eta gizaldien arteko lokarria.
2. Euskal kultura Europako kulturen topagunea.
3. Kultura aniztasuna globalizazioaren aurkako sendagailua.

Mikelek zehaztasunak eman dizkigu erranez: “Hiru amets egin ditut”. Alabaina ametsa beharrezkoa da egitasmoa asmatzeko, eta egitasmoak dakar egitaraua eta ametsak gauzatzea. Oroit “I have a dream” famatua.

1. Lehen erronka gure herriari buruzkoa da. Ekintza kulturelek zentzumena sortzen dute gure aitzinagokoekin lotura eginez altxor miresgarri bat utzi baitigute. Lotura eginez ere gure garaikidekoekin. Alabaina gure gizartea anitza da, ezberdintasun askorekin. Kultura ekintzek momentuak eta topaguneak finkatzen dituzte, non ere bizikidetzat atseginarenera esperimendazioa egiten baitugu.

2. Europaren eraikuntza gelditua da. Euskal kulturaren altxorra, Europaren aberastasuna bat da. Asma dezagun nola euskal kultura topagune izan daiteken beste kulturekin. Europar Batasuna lehentasunez kulturala izan daiteke, bere aniztasunean, amerikar nagusigoari eta erlijio fundamentalismoei aurre egiteko.

3. Globalizazioak beldurtzen gaitu, mundu osoa berdintzeko arriskuaz mehatxatzen baikaitu. Denbora berean UNESCO erakundeak kultura aniztasuna argi eta garbi aldarrikatzen du. Kultur erakundeak Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta kultura bermatzen ditu. Aniztasuna ere baloratuko du mundu osoan trukaketak eta topaketak bultzatuz. “Euskal Herrian bizi diren guztiei herri-kultura ezagutzeko eta bizitzeko aukera eman, EKEk egitasmo hau biziki dinamikoago bilaka dezake. Euskal kultura herritik kanpo eramanez, ospe handiagoa eman diezaioke”, herriaren irudia edertuz.

**“ELKARREKIN BILAKA”, 2007-2013 EGITARAUA**

Hau da Pantxoa Etchegoin, EKEko zuzendariak, epe luzerako programari eman dion izen-burua. Euskal nortasuna da hemen auzian. Alde batek aspaldiko kulturaren jabe gara. Bestalde gure ingurumen soziokulturala biziki mugikorra da. Beraz nahitez mugitu behar dugu. Elkarrekin mugitzen bagara, bilakaera guztien gainetik jatorrizko nortasun kolektiboa zainduko dugu eta aitzinaraziko. Euskal Kultura 2007-2013 egitarauaren aitzin-solasak ingurumen soziokulturala deskribatzen du, 2005ean egin zen inkesta oinarritzat hartuz: “Euskal nortasuna eta kultura, XXI. mendearen hasieran”.

---

*Gure kulturak baditu osagai bereziak (euskara, ipuinak) eta osagai unibertsalak (dantza, musika) eta bitartekoak (kantua, antzerkia). Ikusi dugu ere eremu guzti hauetan badirela elkarte asko, pertsonen arteko eta multzo ezberdinen arteko harremanak errazten dituztenak. Dinamika hau izan daiteke elkarren arteko fidantzan oinarritua den kapital soziala*

***Nolazbait nortasun kolektiboaren ikusmen primordialismoa eta konstruktibista uztartu nahi ditugu. Bai eta ere aniztasunaren eta bizikidetzaren artean. Euskal kulturaren bi arriskuak dira lokalizazioa eta globalizazioa, ghettoa eta akulturazioa. Nahitaez hedatu behar dugu eta hedabide berriak hor ditu lagungarri. Baina gure nortasun berezia galdu gabe. Eta ahalaz gutarteko bizikidetasuna zainduz. Erronka honen betetzeko artistek, elkarte herrikoiek eta kultura erakundeek bitartekaritza funtzioa bete dezakete.***

## **Euskal Herria aniztasun kulturalaren aitzinean.**

Azken urte hauetan Euskal Herriak aldaketa sakonak jasan ditu, nola demografiaren aldetik hala gizarte bizitzaren aldetik: tokiko jendetza zahartzen den neurrian, etorkinek jarraipena segurtazen dute. Hizkuntzak eta kulturak nahasten dira herri kulturaren tokia hartuz. Azkenean geure nortasunaz dudatzen gara. Nortasun eta kultura inkestan galdegin zen: “Zuretzat zein dira baldintza nagusik zure burua euskaldun sentitzeko?” Erantzun ezberdinak agertu dira.

Iparraldean euskal nortasunaren baldintza nagusiak dira sor-lekua, euskara eta arbasoak, hots ezaugarri tradizionalak. Aldiz Hegoaldean euskal herritar izateko sor-lekuak badu bere garrantzia, baina hein berean edo gehiago Euskal herritar izateko nahia, herrian bizitzeko eta lan egiteko aukera. Antropologoek aipatzen dituzten nortasunaren bi ikusmoldeak agertzen direla: alde batetik *primordialismoa*, gure nortasuna betidanikakoa dela uste duena, bestetik *konstruktibismoa*, gure nortasuna eraikitzen dugula bizitza moldearen arabera eta nahi dugun bezala. Hots tradizioa edo irekidura.

Horiek hola, han eta hemen, Euskal herritar gehienek nortasun bikoitza sentitzen dute, nortasun marraduna: euskaldun-frantses, euskaldun-espainol, nafar-euskaldun. Ezberdintasunak badira, han gehienik euskaldun edo nafar senditzen dute beren burua, hemen euskaldun bezenbat frantses. Baina multzo honetan ere anitzek nahi dute hurrek euskara ikas dezaten eta jatorrizko euskal izenak atxik ditzagun.

Nortasun bikoitzak barneko tentsioak sortzen ditu. Hona Hazpandar baten lekukotasun hunkigarria, inkestako eztabaida talde batean adierazi zuena: “Bat bestearen gainean zeuden nortasunekin adiskidetu naiz eta orain euskalduna sentitzen naiz. Hori da nire lehen nortasuna. Eta gero frantsesa naiz adoptzioz. Eskola frantsesera joan nintzen nire herrixkan, eskola publikora (...) Azkenik europarra naiz eta mundu osokoa. Iraganean gai hori oso zaila izan zen, baina gauza hau pertsonala da”. Azkenean norberaren hautuzko gauza bat.

## **Bizikidetasun kulturala lortu behar dugu.**

Aniztasuna nagusi den gizarteak nolazbait batasuna lortu behar du, elkarrekin bizitzeko. Problema hau orotan gertatzen da, baina UNESCOren Adierazpen Unibertsalak aterabide bat eskaitzen digu: “Gero eta aniztasun gehiago duten gure gizarteetan, beharrezko da harreman harmonikoak eta elkarrekin bizitzeko gogoia bermatzea, nortasun anitzak, ezberdinak eta dinamikoak dituzten pertsonen eta giza-taldeen artean” (2. artikulua).

Gerta daiteke euskal kultura bilaka dadin gutartean bizi diren guztien lokarria, Mikelen lehen ametsaren arabera. Alabaina gure kulturak baditu osagai bereziak (euskara, ipuinak) eta osagai unibertsalak (dantza,

musika) eta bitartekoak (kantua, antzerkia). Ikusi dugu ere eremu guzti hauetan badirela elkarte asko, pertsonen arteko eta multzo ezberdinen arteko harremanak errazten dituztenak. Dinamika hau izan daiteke elkarren arteko fidantzan oinarritua den kapital soziala.

Kultura, bizikidetasunaren tresna izanen da gero eta publiko zabala- goei egokitzen bada. Orduan lotura eginen du tokiko, etorkinen eta turisten artean, euskaldunen eta erdaldunen artean, hiritarren eta baserri- taren artean eta euskal gogoia ororentzat erreferentzia atsegina bilaka dai- teke. Horretarako kultur ekintzek erakargarriak eta hurbil-errazak izan behar dute, bereziki hiri guneean.

### **Euskal kultura lurraldearen erdigunean kokatzen da.**

Nortasunari eta kulturari buruzko inkestan ikusten dugu lurraldearen kontzeptua anitza dela. Askok onartzen dute “Zazpiak bat” arketipoa. Baina Hegoaldean erreferentziatzko lurraldea Euskal Autonomia Elkar- goa da, Iparraldean barneko herrialde euskaldunak diren bezala. Gure herria izendatzeko ere zailatasunak baditugu. Euskal Herria, Pays Bas- que, Pais Vasco, Baskonia, Euskadi ez dira osoki sinonimoak. Ondorioz lurraldea elkarrekin asmatu behar dugun kontzeptua da.

Asmatu eta eraiki. Euskal Herri 2020 prospektibak agertu ditu lurralde antolaketaren erronkak, itsasalde jendetsua, aberatsa eta erdal- dunaren eta barnealde ahula eta euskaldunaren artean. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren beste erronka bat da, garapen iraunkorra nahi badugu aitzinarazi ekonomia, azpiegitura eta euskal- gintzaren eremuetan.

Askotan errepikatu da kultura garapen faktore bat dela ekomiaren alorrean, gizarte bizitzan eta nor berarentzat. Horretarako kultura ekin- tzak lurraldean landatu behar dira, ez bakarrik kanpotik ikuskizun mirengarriak erakarriz, bai eta ere udalerrietan edo kantonamenduetan dinamika bat sortuz tokian tokiko eragileekin, tokian tokiko kultura zentroekin.

Kultura ere lurralde antolaketan sartu behar da egitasmo zabal baten bidez, baliabideak banatuz kostaldeko hirien eta barnealdeko herrien artean, produktoak kurutzatuz, molde askotako gaitasunak sarean eza- rriz. Elkarlan hau baliagarri litzateke formakuntza artistikorako edo eki- pamendu astunak han eta hemen erabiltzeko. Euskal Kultur Erakundea zerbitzu gune bezala jarraitzeko asmoa dauka, kultura egitasmo orokor bat eramanez, lekuan lekuko egituren lankidetzarekin.

### **Herritik mundura, mundutik herrira.**

Globalizazioa, gaur egun, askorentzat kultura alorreko mamu beltza da. Bizkitartean aipatu inkestan ageri da euskaldunak ez direla baitezpada

---

**2004ko abenduan  
Euskararen Erakunde  
Publikoa (EEP) sortu zen  
tokiko hautetsien  
eraginez, eta 2006an  
Hizkuntza politika 2007-  
2010 proiektua onartua  
izan zen**

**Mugaz gaineko bi erakunde publikok euskararen aldeko hizkuntza politika indartsu bat deramate, behar diren baliabideak mobilizatuz. Oraino ez aski, baina inoiz baino gehiago.**

globalizazioaren beldur. Galdea hau zen “Zer da zure ustez mundualizazioa euskal kulturari begira? Traba bat, aberastasun bat ala ez du eraginik?” Euskal Herria orokorki ikusiz, kopuru berdinak (%26) dio globalizazioa euskal kulturarentzat trava dela edo aberastasun bat. Bestek (%17) ez dute eraginik ikusten, onik ez txarrik euskal kulturarentzat. Iparraldean askoz gehiagok (%34) eragin ona goaitzen dute euskal kulturarentzat, arriskuak ikusten dituztenen aldean (%18). Gogo lasaiaren seinalea ote da kulturen topaketari begira?

Oro har globalizazioa mehatxu bat izan daiteke, bai eta ere garapenaren aukera eman lezake. Christian Coulon, zientzia politika irakasleak “glokalizazioa” neologismoa erabiltzen du “global” eta “local” hitzak uztartzuz: “Gogoan atxik dezagun globalizazio tokiko kulturen birdefinitze iturri bat ere badela”. Irudimen aldaketa egiten badu, tokiko kultura “adarkatzen” da, adar bat bilakatzen kultura guztien zuhaitzean. Aldagaitz egoten bada, aniztasunaren historiari uko egiten dio, ohitura bilakatzeko eta ghetto batean sartzen.

Euskal Kultur Erakundeak aldi berean batasunaren eta aniztasunaren apostua egin du bereziki Batekmila programarekin. Ideia nagusia da, onartu behar dugula jendarte anitz eta mugikor batean bizi garela, eta hortakotz bizikidetasuna bilatu behar dugula kultura ekintzen bidez. Egitarau aberats bat dabil urte hauetan, partaidetzak eta harremanak errazten dituena, bai eta ere oroimena eta sormena uztartzen. Adibidez “Zaharren urratsetik”, “Batek Mila show room”, egonaldiak Sao Tomen, Georgian, trukaketak Innu amarindianoekin, Siberiako Yakoutes-Sakharrekin eta Euskal Herrian eta herritik kanpo dabilen Batekmila erakusketak multimedia.

## **2007 – 2013 egitaraua**

Programa hau aipatu dugun lurralde egitasmoan sartzen da. Uste baitugu kultura lurralde antolaketaren eta garapen iraunkorraren motor bat izan daitekeela. Bereziki lau ildo irekiz:

- Ondarea, sormenenaren iturburu.
- Sormena, kulturaren zerizana.
- Hedapena, norabide anitzetara.
- Bitartekaritza, publiko berriei buruz.

Ezin gara zehaztasunetan sartu. Baina atalburuen zerrendak erakusten du oraingo kultur gintza badabilala ondaretik sormenera, beraz iraganaren eta etorkizunaren arteko bidean. Nolazbait nortasun kolektiboaren ikusmen primordialismoa eta konstruktibista uztartu nahi ditugu. Bai eta ere aniztasunaren eta bizikidetzaren artean. Euskal kulturaren bi arriskuak dira lokalizazioa eta globalizazioa, ghettoa eta akulturazioa. Nahi-

taez hedatu behar dugu eta hedabide berriak hor ditu lagungarri. Baina gure nortasun berezia galdu gabe. Eta ahalaz gutarteko bizikidetasuna zainduz. Erronka honen betetzeko artistek, elkarte herrikoiek eta kultura erakundeek bitartekaritza funtzioa bete dezakete.

Eta zer gertatzen da euskalgintzarekin?

## HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA

1990az geroztik, Euskal Kultur Erakundeak segurtatzen zuen euskararen zerbitzu, ez euskal ikaskuntza, baina bai gizarte erabilera. Geroztik Ipar Euskal Herriko hizkuntza politikaren historia lau datetan laburbil daiteke:

- 1995: Garapen Kontseilua eta hizkuntz antolaketa.
- 2000: Hitzarmen berezia eta hizkuntza politika.
- 2005: Euskararen Erakunde Publikoa eta hizkuntza politika berria.
- 2007: Mugaz-gaineko hitzarmena.

1995ean bi erakunde sortu ziren Euskal Herri 2010 prospektibaren ildotik: Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua. Bi urtez gogetatu ondoren, besteak beste, onartua izan zen Hizkuntz Antolaketaren atala lau ardatz finkatuz: euskarazko eta euskararen irakaskuntza, euskal toponimia, euskal komunikabideak eta euskararen erabilera zerbitzu publikoetan. Aipamen bat: "Lehentasuna duten norabide hauei esker, euskararen aldeko hizkuntz politikarako zutabeak eraik daitezke, ofizialki onartuz nortasun hizkuntzak hartze duen oinarritzko estatutua: Euskal Herriaren hizkuntza euskara da". Hizkuntza antolatzeke botere publikoak egitura informal bat eraiki zuen "Obragintza publikoa".

Hain zuzen 2000. urteko abenduaren 22an, Estatuak eskaini zigun "Hitzarmen berezia Euskal Herri 2001-2006" hamar ataletan. Eta lehen atalburua zen "Hizkuntza politika", esamolde hau lehen aldiz erabilia baitzen idazki ofizial batean. Hamar ekintza zerrendatuak ziren lehena "Hizkuntza Kontseilua" izanki. Euskalgintzako eremu asko programatuak ziren, Euskaltzaindia, pedagogia, euskal irratia, ikerketa, besteak beste. Baina ez euskal irakaskuntza. Obragintza publikoa egitauaren eramale. Horiek hola euskalgintza erakundeek, Euskal Konfederazioan bildurik, bermatzen zuten egitarauan ez ziren lan-idoak, bereziki euskararen erabilera zerbitzu publikoetan, herriko etxeetan.

2004ko abenduan Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu zen tokiko hautetsien eraginez, eta 2006an Hizkuntza politika 2007-2010 proiektua onartua izan zen norabide honekin: "Testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartze horren ondorioa da lema hau, egitasmo osoaren egiazko iparrorratza dena, eraikuntza nahiz obratzea gidatuz: helburu nagusia: hiztun osoak; lehentasuna: belaunaldi gazteak." 12 erronka defi-

---

*Ikerketek eta gogoetek Euskal Herriaren argazki konplexua ematen digute, berezia bere hizkuntzari atxikia delakotz eta nortasun sentimendu indartsua duelakotz, eta anitza sinesmen, kultura praktiken eta elkarte engaiamenduen aldetik. Beraz dena bilakabidean da: lurraldearen kontzeptua, hizkuntza eta kultura adierazpenak eta bereziki nortasun kontzientzia. Gizartearen aniztasunak eskatzen du bizikidetasun kulturala. Euskal kultura lurraldearen erdigunean dago baina, herritik mundura so eginez.*



*Euskararen funtzio  
sinbolikoa denek onartzen  
dute, baina sinbolismoa  
laster gal lezake, ez  
bagara folklorismotik  
erabilera publikora igan  
egiten. Eskolak  
euskalduntasuna  
salbatuko du, familiaren  
lankidetzaren ardiesten badu  
eta gizartearen  
jarraipena. XXI. mende  
hastapen hau  
erabakigarria izanen da  
euskararentzat eta euskal  
kulturarentzat, guk  
adostasunean erabakiko  
dugun heinean.*

nituak dira bakoitza bere norabide eta lan-ildoekin hiru zatitan banaturik: euskara transmititu, euskaraz bizi eta euskara bizkortu.

**Hizkuntza politikaren erronkak.**

1. Euskararen transmisioa familiaren eta eskolaren bidez.
2. Euskararen erabilera gizarte bizitzan.
3. Euskararen kalitatea.
4. Euskal gogoak. Motibazio linguistikoaren erronka honek beste hiruak zeharkatzen ditu.

Bi berrikuntza handi izan dira: Pariseko Hezkuntza ministeritzak Paueko Kontseilu nagusiarekin izenpetu zuen hitzarmen bat euskal irakaskuntza antolatzeko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde publikoak elkarrekin hitzartu ziren, 2003an Baionako Protokoloan gero 2007ko hitzarmena bilakatu dena.

**2007ko hitzarmena**

Hitzarmen honek garrantzi handia dauka, mugaz-gaineko hizkuntza politika oinarritzen baitu. Xede nagusia da lankidetzaren instituzional baten norabideak finkatzea, onartuz bien arteko elkarlan honek eskatzen duela kudeaketa “bakarra baina koordinatua” eta hitzartua, bakoitzak bere eremuetan gauzatuko duena.

Oinarri juridikoa da Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Tratatuak, Baionan izenpetu zena, 1995eko martxoaren 15ean eta lurraldeen arteko lankidetzaren baimentzen duena mugaz-gainetik. 1982ko euskararen legeak ere Euskal Herri osoko elkarlana arautzen du. Hona zer dion lehen erabaki gehigarriak: “Jaurlaritza, bere eskumenen esparruan, Autonomia Elkartearen lurraldetik kanpo jardunik, euskararen ikerketan, babesean eta sustapenean lan egiten duten, erakundeen edo agintaritzen lankide izango da, horretarako kultura-atxikipenak antolatuz”.

Bi erakunde publikoek onartzen dute erreferentziatzeko idazki bera. “Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren egitekoak eta lan-lerroak kontuan izanik, ondoko arloetan elkarlanean jarduteko borondatea adierazten dute hitzarmenaren sinatzaileek. Bi partaideek lau erronka horiei lotutako jarduerak elkarrekin antolatzeko edo sustatzeko konpromisioa hartzen dute.

1. Euskararen transmisioa: adin guztietako hiztunen kopurua emendatu nahi dugu, eta ondorioz aitzineko urteetan inkesta soziolinguistikoei agerian jarri duten bilakaera aldatu.

2. Hizkuntzaren presentzia eta erabilera garatu nahi dugu bizitzaren sozial zein pribatuaren alor guztietan:

- hizkuntza gehiago ikusia eta entzuna izan dadin, gisa horretan,

dinamika berri bat sortzeko, hiztunek euskara gehiago balia dezaten;

- hizkuntzak urratsez urrats komunikazio funtzioa berriz eskura dezan edo irabaz dezan.

3. Hizkuntzaren kalitatea zaindu eta areagotu nahi dugu, ahoz eta idatziz, erabilera publiko zein pribatuko esparru ezberdinetan.

4. Euskal gogo motibazioaren zeharkako erronka da. Helburua da aldeko jarrera bultzatzea, gizartearen atxikimendua indartzea, aipatu beste lan sail guztietan eraginkorrakoak izateko gisan”.

Urteko Eranskina, elkarlana zehazteko tresna da. Hitzarmenak diraueno, urte bakoitz eranskin bat gehituko da bi atal nagusirekin: elkarlanerako ekimenak eta Iparraldeko eragileei buruzko sustapen lerroak. Elkarlanerako ekimenak egitarau zehatz batean sartuko dira, alderdi bakoitzak zehazten dituela bere ekarpenak, baliabideak, eginbeharrak.

Iparraldeko eragileentzat lehenik bi alderdiek dirulaguntzaren fonda eratuko dute bien ekarpenak definituz. Gero deialdi bakarra egingen da eta Euskararen Erakunde Publikoak segurtatuko du dirulaguntza deialdiaren kudeaketa. Eusko Jaurlaritzaren presentzia agertuko da deialdiaren urras guztietan.

Jarraipenerako Batzordeak bi maila dauzka, politikoa eta teknikoa:

- Gidaritza Batzordean daude Kultura Sailburua, Hizkuntza politikarako Sailburuordea, Koordinazio zuzendaria, Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Ordezkarria eta Iparraldetik Euskararen Erakunde Publikoko presidentea eta bi presidentorde, bai eta era Baionako Suprefeta.

- Batzorde teknikoan bi erakundeetako zuzendariak eta ardura-dunak.

## **Oraindik bilan bat?**

Zortzi hilabete laburregi da bilan bat egiteko. Halere erran dezakegu hitzarmen hau, 1982ko euskararen legeak lehenengo erabaki gehigarrian aipatzen duen lankidetzaren tresna bikaina dela. Nazioarteko zuzenbidea eta estatuetako legediak errespetatzen ditu. Mugaz gaineko bi erakunde publikok euskararen aldeko hizkuntza politika indartsu bat deramate, behar diren baliabideak mobilizatuz. Oraino ez aski, baina inoiz baino gehiago.

Gainera mugaz bi aldeetako indar politikoak (Errepublikaren ordezkarria barne) eta baliabide teknikoak elkarrekin euskararen bizkortzeko, Baigorriko amets ederra baino ederrago da. Alta zerbait falta da. “I have a dream”. Noiz hitzarmen hirukoitza Nafarroa barne? Hau da gure amets ederra, euskararen legearen 25. urtekari.

## **BIDENABARREKO GOGOETA**

Ikerketek eta gogoetek Euskal Herriaren argazki konplexua ematen digute, berezia bere hizkuntzari atxikia delakotz eta nortasun sentimendu indartsua duelakotz, eta anitza sinesmen, kultura praktiken eta elkarte engaiamenduen aldetik. Beraz dena bilakabidean da: lurraldearen kontzeptua, hizkuntza eta kultura adierazpenak eta bereziki nortasun kontzientzia. Gizartearen aniztasunak eskatzen du bizikidetasun kulturala. Euskal kultura lurraldearen erdigunean dago baina, herritik mundura so eginez.

Ipar Euskal Herrian, oraingo hiru erronka nagusiak dira lurraldearen garapen iraunkorra, kulturaren berrikuntza eta euskararen aldeko hizkuntza politika. Errezetarik ez dago, baina arriskuen arteko bide zuzenak ageri dira. Ondare kulturala zainduko da, fundamentalismora erori gabe; eta belaunaldi berrietako modernitatea bilatuko da, euskaltasunaren muina galdu gabe. Euskararen funtzio sinbolikoa denek onartzen dute, baina sinbolismoa laster gal lezake, ez bagara folklorismotik erabilera publikora igan egiten. Eskolak euskalduntasuna salbatuko du, familiaren lankidetzari ardiesten badu eta gizartearen jarraipena. XXI. mende hastapen hau erabakigarria izanen da euskararentzat eta euskal kulturarentzat, guk adostasunean erabakiko dugun heinean.■

## **OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA**

- Askoren artean (1996). *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema: norabide orokorrak, deklinabide eraginkorrak, karten bilduma*. Baiona. Haute-tsiens kontseilua eta Garapen kontseilua.
- Baxok, E. (1999). *Euskararen prospektiba*, in *Jakin* 114.
- Baxok, E. eta besteak (2006). *Euskal nortasuna eta kultura, XXI. mendearen hasieran*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Brisson, M eta besteak (2006). *Hizkuntza politika proiektua*. Baiona. Euskararen Erakunde Publikoa.
- Coulon, C. (2005). *Nortasun arazoak gogoetatzea, XXI. mendearen hasiera honetan: zenbait lan-hipotesi in Euskal nortasuna...* Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Etchegoin, P. (2006). *Euskal kultura 2007-2013, elgarrekin bilaka*. Uztartitze. Euskal Erakunde Publikoa.
- Fremont, C. et alii (2000). *Convention spécifique Pays Basque 2001-2006*. Bayonne. Sous-Préfecture.
- Goenaga, P. eta besteak (2001). *Euskararen jarraipena III, Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta*. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila.
- Iñigo A. eta besteak (2007). *Hizkuntza-zuzenbidea, testu-bilduma euskaraz*. Bilbo. Euskaltzaindia. Jagon Saila:
- Euskal Autonomia Erkidegoa (1982). *Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen arauzkotzekoa*. (113. or.).

Frantziako Errepublika (1999). *Voynet legea, lurralde antolaketa eta garapen iraunkorrari buruzkoa*, 14. Artikulua. (145. or.).

UNESCO (2001). *Kultura-aniztasunaren aldeko adierazpen nagusia*, 5. artikulua. (39. or.).

Kanblong, R. eta besteak (1998). *Ipar Euskal Herria egituratze bidean* in *Jakin* 104.

Webgunea: eke.org